

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko abenduaren 22an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

21.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 deialdiko “D lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak”-ko ebazpen partziala onartzea.

Alkate-udalburuaren 2022ko abenduaren 21eko proposamenak dio:

Gaia: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 deialdiko “D lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak”-ko ebazpen partziala onartzea.

2022ko abenduaren 13n egindako Partaidetza eta Garapen Komunitarioko batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko teknikariak, Onintza Andres Arancetak, bere aktan jasotzen duenez.

“Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 deialdiko “D lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak”-ko ebazpen partziala onartzea

Garapenaren aldeko nazioarteko dirulaguntzen baitan “D” lerroan jasotako eskaera berria aurkeztu du partaidetza teknikariak, ebazpen partziala bideratzeko.

Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran Udal Plenoak aho batez ondorengo akordioa onartu zuen: Oñatiko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokor eta espezifikokoak (GAOn argitaratua 2022ko apirilaren 20an, 72.zk.)

Oñatiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko apirilaren 7an egindako bileran, besteak beste, 2022 ekitaldiari dagokion deialdia egitea onartu zuen (GAOn argitaratua 2022ko apirilaren 27an, 78.zk.)

“D” lerroko, eta 2022ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hamazortzi mila euroko (18.000,00 €) gastua baimendu da, 0391.481.231.60.01 2022 sailaren kargura. Orain arte 8.000 €-ko gastua dago bideratuta lerro honetan.

D lerroko dirulaguntzak eskatzeko epea 2022ko azaroaren 1a artekoa da.

2022ko urriaren 28ko dataz, (3716 sarrera zk.) dirulaguntza eskaera aurkeztu du HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAK (G75193607). Eskaerarekin batera, zuriaketarako agiriak ere aurkeztu ditu.

Partaidetza eta Garapen Komunitarioko sailak jasotako eskaera aurkeztu du, eta oinarri espezifikoetan jasotako puntuazio-irizpideak kontuan hartuta aurre-balorazioa egin du eta batzordearen azterketara jarri da txostena.

Eskatzaileak oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu du eta dirulaguntzaren onuradun izateko baldintza (5. artikulua).) betetzen du. Dirulaguntza ematea proposatu da, ondorengo eran:

ESKATZAILEA	EKINTZA	PROIEKTUAREN ZENBATEKOA GUZTIRA (€)	ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZA (€)	JASOTAKO PUNTUAZIOAREN ARABERA EMANDAKO	ZURIKETARAKO GUTXIENGO ZENBATEKO KONPUTAGARRIA	ORDAINKETA BAKARRA AURRERATUA

				DIRULAGUNTZA (€)	(€)	(%100)
HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA						
G75193607 (3716 sarrera zk.)	Yemenen lau hilabetetarako gosaria	14.784,00 €	10.000,00 €	4.000,00 €	5.333,33 €	4.000,00 €

*) Oharra: zuriketari dagokion zenbateko konputagarria honako formularen bitartez atera da:

$$\text{Zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria} = \frac{\text{Onartutako diru laguntzaren zenbatekoa} \times 100}{75}$$

Eskatzaileek ebazpenaren jakinarazpenean « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbatekoaren 100 % zuritu beharko dute gutxienez.

Dirulaguntzari emandako erabileraren justifikazioa aurkezteko epea, gehienez ere, urteko deialdian ezarritakoa da (2022ko azaroaren 30).

Eskaerarekin batera, zuriketarako inprimakia eta zuriketarako fakturak aurkeztu ditu HOTZ elkarteak, zuriketarako epearen barruan. Dirulaguntzaren ebazpenik egin gabe dagoenez, baina 2023ko deialdiaren arabera "D" lerroko eskabide bakoitzari gehienez ere 4.000 € emango zaizkiola kontuan hartuta, kopuru horrekiko « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbateko osoa zuritu du HOTZ elkarteak. Batzordeak zuriketa ebazpena publikatzen den epetik aurrera kontatzen hasita 10 eguneko epean oinarrietan zehaztutako gainontzeko zuriketa agiriak jasotzeko errekerimendua egitea proposatu du.

Honekin batera, oinarrietan ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Hau horrela, dirulaguntzen ordainketa honela bideratzea proposatzen du Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzorde Informatiboak:

- Onarpenarekin batera onartutako dirulaguntzaren %100 emango zaio eskatzaileari- ordainketa bakar aurreratua-. Dirulaguntzen xedea kontuan hartuta eta horiek jasotzen dituzten erakundeak irabazi asmorik gabekoak direnez, ez da bermerik eskatuko ordainketa aurreratuengatik
- Eskatzaileak oinarri orokorretan eta espezifikoen zehaztutako betebeharrak bete dituztela eta derrigorrezko agiriak aurkeztu dituztela egiaztatuko du Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak zuriketa epean. Zuriketa egiteko formulario normalizatuak Oñatiko udalaren dirulaguntzen web atarian eskuratu ahal izango dira.
- Eskatzaileak jakinarazpenean « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbateko osoa % zuritu beharko du gutxienez dirulaguntza bere osotasunean jasotzeko, 2022ko azaroaren 30erako berandurenez. Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa bada, dagokion itzulketa-espeditatea izapidetuko da.
- Oinarrietan edo dirulaguntzaren emakidan jarritako edozein betebeharrak betetzen ez bada, berriz aztertuko da dirulaguntza, eta, horren arabera, emandako dirulaguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da.
- Zuriketarako epeak luzaezinak izango dira kasu eta egoera guztietan."

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikuluko hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak kudeatzen dituen garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen kontura emango diren dirulaguntzen 2022ko oinarriak eta deialdiak, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren 2022ko apirilaren 20an (72. Zk.) eta apirilaren 27an (78. Zk.; BDNS (Identif.): 621047)) argitaratu ziren, hurrenez hurren.

Azaldutakoagatik, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak “D lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak”-ri buruz egindako proposamenari jarraiki, HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA dirulaguntzaren onuradun izaera berrestea, 2022ko dirulaguntzen deialdiaren ebazpen partziala egitea eta 4.000 €-ko gastua baimentzea, goian aipatutako xehetasunekin.

Bigarrena.- “D lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak”-en onarpenarekin batera dirulaguntzaren %100a onartzea eta ordaintzea elkarteari-taulan zehaztutako ordainketa bakar aurreratua. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako ekintzak benetan egin direla agiri bidez egiaztatuta behar dute, kontu zurigarria aurkeztuz ebazpena publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 eguneko epean.

Aurkeztutako justifikazio aztertu eta egiaztatutako du Udalak.

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkaturiko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Dirulaguntza hauen onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta partaidetza teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta kontuhartzailearen ondorengo aldeko oniritziaren baldintzapean (32/2018 Foru Dekretuaren 2.3, 7.1 a eta 13 artikuluekin bat etorritik) Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUd552eac8-8a49-4004-a5a6-178edf734e27**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>**